# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

## 1195

*AGINDUA, 2014ko otsailaren 25ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Donostiako Notario-Barrutiko protokoloetako notario-agirizain bat izendatzekoa.*

Justizia Ministerioko Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak, Notarioen Erregelamenduko 289. eta 294. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, Donostiako Notario-Barrutiko (Euskal Herriko Notario Elkargoa) protokoloetarako notario-agirizainaren kargua betetzeko egin duen proposamena ikusi ondoren, Autonomia Estatutuko 10.22 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta sail horien funtzioak eta jarduera-eremuak zehazteko abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Inmaculada Adanez García andrea izendatzea Donostiako Notario-Barrutiko protokoloetako notario-agirizain (Euskal Herriko Notario Elkargoa). Izendatutakoak Donostian du bizilekua.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 25a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.